

2.—EUSKALTZAINDIAREN ERABAKI-PROPOSAMENA:
Ramón Jauregi jaunaren eskariari zer erantzun

1. Atseginez jaso du Euskaltzaindiak Euskal Herriko alderdi politiko nagusietako baten izenean azalpena eta eritzi-eskea.

2. Ongi dakizunez, erakunde ofiziala da Euskaltzaindia, bertoko herri-agintek sortua eta, dirubidez zein lege-arauz, behar den babesez hornitua.

Eginkizun zehatz eta berariazkoa du Euskaltzaindiak: euskara egokitu, babestu eta indarberritzea.

Begirune handiz ikusten ditu Euskaltzaindiak bere albo-hizkuntza nagusiak eta haiei dagozkien hiztun-taldeak; baina euskararen erabilera zuzena bermatu eta euskaldunen bide-argitzaile izatea du helburu eta xede bakar.

3. Euskaltzaindiaren berariazko jardun-esparru horretan bidelagun eta eritzi-emaileak atseginez eta beso-zabalik hartzen ditu Akademia honek. Eta, ongi ulertuko duzunez, orain, ere jarrera eta abegi on berberaz gauzkazu.

Jakizu, beraz, euskara indarberritzeko orohar, eta bere erabilera zuzenoparoa bermatzeko bereziki, datozkeen proposamenak behar arretaz aztertuko dituela Euskaltzaindiak eta behar den erabakia hartuko.

4. Hizkuntzari buruzko alderdi-politikan jardutea ez da Euskaltzaindiaren egitekoa. Ez dagokio, ondorioz, aurreko beste zenbait kasutan bezala, Legebiltzarrean Batzorde jakinik sortzea komeni den ala ez adieraztea.

Gasteiz, 1991, apirilak 12